

HERRIZAINGO SAILA

IRAGARKIA, helikopteroak eta euren piezak birjarri eta mantentzearena esleitu dela argitara ematen duena. 15949

LEHIAKETA, laborategiko altzariak eskuratzeko dena. 15949

**ETXEBIZITZA ETA GIZARTE
GAIETAKO SAILA**

LEHIAKETA. Iragarkia, Euskal Autonomia Erkidegoko etxebizitzan sustapen publikoetan segurtasuna eta kontserbazioa zaintzeko zerbitzu-kontrataua esleitzeko dena. (21A/03 expediente). 15951

OSASUN SAILA

LEHIAKETA PUBLIKOA, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuaren, Osakidetza-Euskal Osasun Zerbitzuko Gipuzkoa Mendebaldeko Eskualdeko zenbait zentrotarako altzari eta ekipoak erosteko dena. 15953

Beste Iragarki Oficial Batzuk**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**

EDIKTUA, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordearen 2003ko maiatzaren 9ko Ebazpena, Jaime Corthay Sanmartín jaunari errekerimendua egiten diona, jakinarazten duena. 15954

Xedapen Orokorrak**JAURLARITZAREN LEHENDAKARITZA****Zk-4684**

186/2003 DEKRETUA, uztailaren 29koan, kanpoko euskal etxeak dauden tokietara bira kulturalak egiteko diru-laguntzen araubidea ezartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekiko harremanetarako maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen 1. artikuluaren arabera, honako hau

DEPARTAMENTO DE INTERIOR

ANUNCIO por el que se da publicidad a la adjudicación del mantenimiento y reposición de los helicópteros y sus piezas. 15949

CONCURSO para el suministro de mobiliario de laboratorio. 15949

**DEPARTAMENTO DE VIVIENDA
Y ASUNTOS SOCIALES**

CONCURSO. Anuncio para la adjudicación del contrato de servicios que tiene por objeto la Vigilancia de Seguridad y Conservación de las Promociones Públicas de Viviendas de la Comunidad Autónoma. (Expediente 21A/03). 15951

DEPARTAMENTO DE SANIDAD

CONCURSO PÚBLICO de Osakidetza-Servicio vasco de salud, para la adquisición de mobiliario y equipamiento para diversos centros de la Comarca Gipuzkoa Oeste. 15953

Otros Anuncios Oficiales**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**

EDICTO por el que se notifica la Resolución de 9 de mayo de 2003, del Viceconsejero de Administración y Servicios del Departamento de Educación, Universidades e Investigación por la que se requiere a D Jaime Corthay Sanmartín. 15954

Disposiciones Generales**PRESIDENCIA DEL GOBIERNO****Nº-4684**

DECRETO 186/2003, de 29 de julio, por el que se regula el régimen de subvenciones para la realización de giras culturales con destinos en lugares en que estén radicados los Centros Vascos en el exterior.

El artículo 1.º de la Ley 8/1994, de 27 de mayo, de relaciones con las colectividades y centros vascos en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco es-

du helburu lege horrek: Euskadik, euskal gizartea eta bertako erakundeek Euskal Autonomia Erkidegoaz kanpoko euskal gizatalde eta etxeekin dauzkaten harremannak sustatzea, harremanoi laguntzea eta harremanok areagotzea.

Lege horren arabera, harreman horiek sustatzu honako hauek lortu nahi dira: euskal gizatalde eta etxeak sendotzen laguntza, horien barne kohesioa eta elkarrekin eraginkortasuna bultzatuta; euskal gizataldeean eta Euskal Herriaren arteko harremanak zaindu eta bultzatzea; Euskadiko egoera euskal gizataldeak dauden tokietan ezagutaraztea, euskal kultura zabaltzeko, bultzatzeko eta garatzeko ekimenak sustatzu; eta euskal gizataldeak dauden herrialdeekiko harreman kulturalak bultzatzea.

Lege horri jarraiki, euskal etxeek diru-laguntzak edo beste edozein laguntza jaso ahal izango dute. Laguntza horiek euskal administrazio publikoek lege horretan jasotako helburuak betetzeko eman ditzakete beren aginpide alorrean.

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek euskal etxeeei, alde batetik, euskal kulturaren jardueretan parte hartu eta jarduera horiek kanpoan ezagutzeko aukera emango diete; eta bestetik, EAEn kokatuta dauden elkarteeek duten kultura ondarea tratatzeko modu bera eskainiko diete.

Horregatik guztiarengatik, Lehendakaritzaren proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2003ko uztailaren 29an egindako bileran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

1. artikulua.— Arauaren helburua eta urteko deialdia.

Dekretu honen helburua kanpoko euskal etxeak dauden tokietara bira kulturalak egiteko diru-laguntzen araubidea ezartzea da.

Diru-laguntza horietara biltzeko deia egingo du urtero Eusko Jaurlaritzako Lehendakaritzako idazkari nafusia ebaZen batez. Ebazpen horretan, dena dela, honako hauek jasoko dira: deialdiaren helburua; indarraldia; diru-laguntzak esleitzeko irizpideen pisua eta, halaber, balegokie, zehaztasuna; diru-laguntzen gehienezko zenbatekoa; eskabideak aurkezteko tokia eta epea; eta Ebaluazio Batzordearen kideak.

2. artikulua.— Onuradunak.

Dekretu honek araututako diru-laguntzak Euskal Autonomia Erkidegoan bizi den edozein pertsona fisi-

tablece que el objeto de la misma es la promoción, apoyo e intensificación de las relaciones de Euskadi, de la sociedad vasca y de sus instituciones, con las colectividades vascas y Centros Vascos existentes en el exterior de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Los fines que se persiguen a través del impulso de tales relaciones son fundamentalmente, según el citado texto legal, la contribución al fortalecimiento de las colectividades vascas favoreciendo su cohesión interna y la eficacia de sus acciones asociativas; la conservación y potenciación de los vínculos de las colectividades vascas con el País Vasco; la proyección del conocimiento de la realidad de Euskadi allá donde estén ubicadas las colectividades vascas, promoviendo actividades de divulgación, impulso y desarrollo de la cultura vasca; y el favorecimiento de las relaciones culturales con los distintos pueblos donde están asentadas las colectividades vascas.

En virtud de la citada Ley, los Centros Vascos, además de las financieras, pueden recibir ayudas de cualquier otra índole que las Administraciones públicas vascas pudieran establecer en el marco de sus respectivas competencias para el cumplimiento de los objetivos previstos en la presente Ley.

Entre las prestaciones que las administraciones públicas de la Comunidad Autónoma procurarán a los centros vascos, se encuentra, por un lado, la participación por parte de éstos en las distintas formas de manifestación de la vida cultural, contribuyendo a la proyección exterior de la misma, y por otro, el idéntico tratamiento al patrimonio cultural que tienen las asociaciones radicadas en la C.A.P.V.

Por todo lo cual, a propuesta de la Presidencia, y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en sesión celebrada el día 29 de julio de 2003,

DISPONGO:

Artículo 1.— Objeto de la norma y convocatoria anual.

El presente Decreto tiene por objeto regular el régimen de subvenciones para la realización de giras culturales a los lugares en que estén radicados los centros vascos en el exterior.

Dichas subvenciones serán convocadas anualmente por Resolución del Secretario General de la Presidencia del Gobierno Vasco, en la que constarán, en todo caso, objeto de la misma, ámbito temporal, la ponderación y en su caso concreción de los criterios de adjudicación, importe máximo de las ayudas, lugar y plazo de presentación de solicitudes, así como la composición de la Comisión de Evaluación.

Artículo 2.— Beneficiarios.

Las subvenciones que regula el presente Decreto podrán ser solicitadas por cualquier persona física o jurí-

kok nahiz juridikok eska ditzake, beti ere kultura zerbitzuak eskaini nahi baditu.

Onuradunei diru-laguntzak emateko eta ordaintze-ko, beharrezkoa izango da Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak edo haren menpeko era-kunde autonomoek emandako izaera bereko laguntzak direla-eta hasitako edozein prozesu (itzulketa edo zehapen) bukatuta egotea.

3. artikulua.- Diruz lagunduko diren jarduerak.

Diru-laguntzak bira kulturaren bidai gastuak ordaintzeko izango dira eta deialdi ebazpenean ezarritako muga izango dute. Bidaiok hartzaileek programatutako dituzte eta euskal etxeen, etxeon federazio eta konfederazioekin adostu beharko dira, maiatzaren 27ko 8/1994 Legearen 2. eta 6. artikuluetan zehaztutakoaren arabera.

4. artikulua – Eskabideak baloratzeko eta diru-laguntzak esleitzeko irizpideak.

1.– Lehiaketa erabiliko da diru-laguntza esleitzeko. Horretarako, hona hemen zer ulertu behar den lehiaketatzat: diru-laguntza esleitzeko prozedura bat da lehiaketa, aurkeztutako eskabideak alderatzen dituena eta aurretik ezarritako balorazio irizpideen arabera lehen-tasun-ordena ezartzen diena, irizpide horiek ezarriz balorazio handiena lortu duten eskabideei bakarrik diru-laguntza esleitzeko.

Ebaluazio Batzordeak baloratuko ditu deialdi ebazpenean ezarri eta zehaztutako alderdiak. Honakoak izango dira alderdi horiek:

- a) kanpoko gizataldeen arteko biran kontratatutako ekitaldiak
- b) programaren balizko hartzaileak
- c) eskatutako diru-laguntzaren aurrekontuaren ego-kitasuna
- d) jardunak Euskadin izan duen arrakasta (sariak, kontratu diren ekitaldiak)
- e) jardunak euskal etxeen bizitzarako duen garran-tzia
- f) euskal etxeetako gazteen parte hartzea
- g) genero ikuspuntuoa

2.– Deialdi ebazenak gutxieneko puntuazioa eza-rriko du edozein bira kultural diruz laguntzeko. Per-tsona fisiko nahiz juridikoak lortutako puntuen propor-tzioan esleituko dira kopuruak; eta onartutako aurre-kontuaren eta deialdirako diru-horniduraren %100a izango da horretarako muga.

5. artikulua – Kudeaketa organoa.

dica domiciliada en la Comunidad Autónoma del País Vasco, entre cuyos objetivos se encuentren la prestación de servicios culturales.

La concesión, y en su caso, el pago de las subvencio-nes y ayudas a los beneficiarios de éstas quedarán condicionados a la terminación de cualquier procedimien-to de reintegro o sancionador que, habiéndose iniciado en el marco de ayudas o subvenciones de la misma na-turaleza concedidas por la Administración General de la Comunidad Autónoma de Euskadi y sus organismos autónomos, se halle todavía en tramitación.

Artículo 3.– Actividades subvencionables.

Las subvenciones se destinarán a cubrir gastos de viaje de las giras programadas por los destinatarios y acor-dadas con los Centros Vascos, Federaciones o Confede-raciones de Centros Vascos-Euskal Etxeak, según se de-finan en los artículos 2 y 6 de la Ley 8/1994, de 27 de mayo, con el límite que se establezca en la Resolución de convocatoria.

Artículo 4.– Criterios de valoración y adjudicación.

1.– La concesión de la subvención se realizará por el procedimiento de concurso. A estos efectos se entende-rá por concurso el procedimiento a través del cual la concesión de las ayudas o subvenciones se realiza me-dioante la comparación de las solicitudes presentadas, a fin de establecer una prelación entre las mismas aten-diendo a los criterios de valoración previamente fijados, y se adjudica sólo a aquéllas que hayan obtenido ma-yor valoración en aplicación de los citados criterios.

La Comisión de Evaluación valorará los aspectos que se determinen y ponderen en la Resolución de Convo-catoria, y que deberán referirse en todo caso, a los si-guiientes aspectos:

- a) Actuaciones contratadas durante la gira entre las colectividades del exterior
- b) Potenciales destinatarios del programa
- c) Razonabilidad del presupuesto de la subvención solicitada
- d) Éxito que la actividad haya cosechado en el País Vasco (premios, número de actuaciones contratadas)
- e) Importancia de la actividad para la vida de los cen-tros vascos
- f) Participación de la juventud de los centros vascos
- g) Perspectiva de género

2.– La Resolución de convocatoria establecerá una puntuación mínima para que cualquier gira pueda ser subvencionada. La adjudicación de las cantidades se rea-lizará en proporción a las puntuaciones obtenidas por la persona física o jurídica solicitante, con el límite del 100% del presupuesto aprobado y de la dotación des-tinada en la convocatoria.

Artículo 5.– Órgano de gestión.

Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako Zuzendari-tzaren bitarbez, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusia arduratuko da diru-laguntzon araubideak berkin dakartzan kudeaketa lanez.

6. artikulua – Beste laguntza batzuekiko baterag-ritasuna.

Dekretu honetan aurreikusitako diru-laguntzak bateragarriak dira beste edozein erakunde publiko zein pribatuk helburu bera lortzeko eman ditzakeen beste laguntza batzuekin, beti ere, horrek gainfinantzatzetik ez badakar. Gainfinantzatzetik izanez gero, ahalik eta gehien gutxituko da diru-laguntzaren zenbatekoa.

7. artikulua – Eskabideak aurkeztea.

1.– Pertsona edota erakunde eskegileak urteko deialdi-ebazpenean ezarritako moduan aurkeztu beharko eskabidea, eta eskabide horri honako dokumentu hauek erantsi beharko dizkio ezinbestean:

- a) Burutu nahi den ekintza azaltzeko txostena, dokumentazio grafikoa erantsiz.
- b) Euskal etxeekin, etxeon federazio edota konfederazioekin adostutako biraren azalpen zehatza eta non burutuko den.
- c) Eskatutako diru-laguntzaren aurrekontua zehatza eurotan.
- d) Proposatutako ekimenak Euskadin izan duen arrakasta eta eragina (sariak, ekitaldi kopurua) justifikatze-ko dokumentuak.
- e) Eskatzailearen NAN edo IFZren fotokopia.
- f) Estatutuen kopia, elkartea edo enpresak izanez gero.
- g) Bira kulturala egingo den euskal etxe, etxeon federazio edo konfederazioekin adostu dela ziurtatzeko agiri idatzia

2.– Eskabidea eskatzaileak izenpetuko du, eta diru-laguntza elkartea edo enpresa batek eskatzen duenean legezko ordezkariak izenpetu beharko du.

8. artikulua.– Aurkeztutako eskabidean egindako hutsak zuzentzea.

1.– Aurkeztutako agirietan zerbait falta bada, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiak erakunde eskegileari eskatuko dio agiri osagarriak bidal ditzala hamar eguneko epean.

2.– Epe hori igarota –jakinarazten den egunaren bi-haramunean hasiko da kontatzen epea– eskabideari uko egin zaiola ulertu beharko da. Horretarako, ebaZen bat eman beharko da aurretik, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Procedura Er-kidearen Legearen 42. artikuluan jasotako baldintzetan.

Corresponderá a la Secretaría General de Acción Exterior, a través de la Dirección de Relaciones con las Colectividades Vascas, la realización de las tareas de gestión que conlleva el presente régimen de ayudas.

Artículo 6.– Compatibilidad con otras ayudas.

Las subvenciones previstas en el presente Decreto son compatibles con aquellas otras que, teniendo el mismo fin, pudieran ser otorgadas por cualquier otra institución pública o privada, siempre que de ello no se derive sobrefinanciación. Caso de producirse ésta se reducirá el importe de la subvención hasta el límite máximo que corresponda.

Artículo 7.– Presentación de solicitudes.

1.– La persona o entidad solicitante de la ayuda deberá presentar su solicitud en la forma que se determine en la Resolución anual de convocatoria, a la que deberá acompañar, necesariamente, la siguiente documentación:

- a) Memoria descriptiva de la actividad a realizar, adjuntando documentación gráfica de la misma.
- b) Descripción detallada de la gira acordada con los Centros Vascos o Federaciones o Confederaciones de Centros Vascos-Euskal Etxeak en los que se va a llevar a cabo.
- c) Presupuesto de la ayuda solicitada detallada en euros.
- d) Justificación documental de la repercisión y aceptación que la actividad propuesta haya conseguido en su realización en el País Vasco (premios, número de actuaciones).
- e) Fotocopia del DNI o CIF del solicitante.
- f) Copia de los Estatutos, en caso de que se trate de asociaciones o empresas.
- g) Acreditación escrita de la gira acordada con los Centros Vascos o Federaciones o Confederaciones de Centros Vascos-Euskal Etxeak en los que se va a llevar a cabo la gira.

2.– La solicitud deberá ser firmada por la persona solicitante, y en caso de personas jurídicas o entidades por la persona física que ostente la representación legal.

Artículo 8.– Subsanación de defectos de la solicitud presentada.

1.–En el supuesto de que la documentación presentada fuera incompleta, la Secretaría General de Acción Exterior requerirá a la persona o entidad solicitante para que en el plazo de diez días remita la documentación complementaria.

2.– Transcurrido dicho plazo, a contar desde el día siguiente al de su notificación, sin que hubiera presentado la documentación requerida, se le tendrá por desistido de su petición previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 42 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

9. artikulua.- Ebaluazio Batzordea

Deialdi bakoitzean aurkeztutako eskabideak aztertzeko, ebaluazio batzordea bat eratuko da. Honako hauek izango dira batzorde horretako kide: Kanpo Harrimanetarako idazkari nagusia –buru izango da–, Euskal Gizataldeekiko Harremanetarako zuzendaria eta Kanpo Harremanetarako Idazkaritz Nagusiko bi pertsona. Diru-laguntzen urteko deialdia egiteko ebazpenaren bitartez izendatuko dira bi pertsona horiek.

Ebaluazio Batzordeak, diru-laguntzak esleitzeko irizpideak kontuan hartuta, alta batean jasoko du bamerazioaren emaitza, puntu gehiago jaso dituenetik gutxien jaso dituenera, eta diru-laguntzak nori eman proposatuko du. Beste zerrenda batean beste hamar programa jasoko ditu lehentasun ordenaren arabera, 14.3 artikuluan ezarritakoa betetzeko.

10. artikulua.- Diru-laguntza esleitzea.

Akta kontuan hartuta, Ebaluazio Batzordeak esleipen proposamena egingo du eta horren berri emango dio Kanpo Harrimanetarako idazkari nagusiak –berori baita batzordean burua– Lehendakaritzaren idazkari nagusiari, diruz lagundutako programen zehaztasunak jasotzen dituen esleipen ebazpene eman dezan Lehendakaritzako idazkari nagusiak. Ebazpen horrek administrazio bidea amaituko du eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da; erakunde eskaizaile bakoitzari ere emango zaio esleipen ebazpenaren berri, deialdi ebazpene indarrena jarri denetik sei hilabete igaro baino lehen. Esleipen ebazpen horren kontra aukerako berraztertzeko errekurso aurkez daiteke organo berean hilabeteko epean; edo administrazioarekiko auzi-errekursoa Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, bi hileko epean. Epeok aipatutako ebazpene Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera hasiko dira kontatzen.

Epe hori igaro ondoren, interesa duen erakundeari inolako ebazpenen berri eman ez bazaio, gaitzetsitzat jo beharko da diru-laguntza eskaera, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Procedura Erkidearen Legearen 44.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

11. artikulua.- Diru-laguntza jasotzen duen pertsonak edo erakundeak bete beharrekoak.

Dekretu honetan araututako diru-laguntzak jasotzen dituzten pertsonek edo erakundeek etxeek honako be-tebehar hauek izango dituzte:

1.– Esleitutako diru-laguntza onartzea. Horretarako, pertsona/erakunde onuradunek hamabost eguneko epea dute, diru-laguntza esleitu zaiela jakinarazten zaientik aurrera, diru-laguntzari uko egiteko berariaz eta idatziz. Horrela egiten ez badute, diru-laguntza onartutatz emango da.

2.– Agindutako helburua betetzeko erabiltzea diru-laguntza.

Artículo 9.– Comisión de Evaluación.

A fin de analizar las solicitudes presentadas en cada convocatoria, se constituirá una Comisión de Evaluación, compuesta por el Secretario General de Acción Exterior, como presidente, por el Director de Relaciones con las Colectividades Vascas y por dos personas pertenecientes a la Secretaría General de Acción Exterior, nombradas mediante la Resolución anual por la que se convocan subvenciones.

Esta Comisión de Evaluación, en base a los criterios de adjudicación de las subvenciones, recogerá en acta el resultado de esta baremación, de mayor a menor puntuación, y elaborará la oportuna propuesta de concesión, que incluirá además una relación de un mínimo de diez programas, en orden de prelación, a los efectos de lo dispuesto en el artículo 14.3.

Artículo 10.– Concesión de la Subvención.

A la vista del acta la Comisión de Evaluación realizará la propuesta de adjudicación, de la cual dará traslado el Secretario General de Acción Exterior como presidente de la Comisión, al Secretario General de la Presidencia, quien dictará Resolución de concesión en la que conste el detalle de los programas subvencionados. Dicha Resolución, que agotará la vía administrativa, será publicada en el Boletín Oficial del País Vasco y notificada a las personas o entidades solicitantes antes de transcurridos seis meses desde la entrada en vigor de la Resolución de convocatoria. Contra la misma se podrá interponer potestativamente recurso de reposición ante el mismo órgano, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, o bien directamente recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Si transcurrido dicho plazo no hubiera sido notificada a la persona o entidad interesada Resolución alguna, podrá entenderse desestimada la petición de subvención, de conformidad con lo establecido en el art. 44.1 de la Ley de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

Artículo 11.– Obligaciones de la persona o entidad beneficiaria.

Las personas o entidades beneficiarias de las subvenciones reguladas en el presente Decreto deberán cumplir en todo caso las siguientes obligaciones:

1.– Aceptar la subvención concedida. En este sentido, si en el plazo de quince días tras la fecha de recepción de la comunicación por la que se notifica la subvención las personas/entidades beneficiarias no renuncian expresamente y por escrito a la misma, se entenderá que ésta queda aceptada.

2.– Utilizar la subvención para el concreto destino para el que ha sido concedida.

3.- Kontrol Ekonomikoko Bulegoak eta Herri Kontuen Euskal Epaitegiak, beren eginkizunak betetzeko, deialdi bakoitzean jasotako diru-laguntzei buruz eskatzen dieten informazioa ematea.

4.- Edozein administratzietatik edo erakunde publiko edo pribatutatik helburu bera betetzeko bestelako diru-laguntza edo baliabiderik lortzen badute, horren berri ematea Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarri.

12. artikulua.- Diru-laguntza ordaintzea.

Bi alditan ordainduko da esleitutako diru-laguntza: %50 diru-laguntza onartu ondoren; eta gainontzeko %50, Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusian diru-laguntza osoa estaltzen dituzten ordainketen ziurtagiriak jaso ondoren.

13. artikulua.- Diru-laguntza justifikatzea.

Diru-laguntza jasotzen duten pertsona fisiko edo juridikoek ondoko agiri hauek aurkeztu beharko dituzte bira kulturala amaitu eta handik hiru hilabete igaro baino lehen:

a) Diru-laguntza jaso duen bira burutzeari buruzko txosten zehatzta.

b) Diru-laguntza jaso duen ekintzak sortutako gastuak justifikatzeko agiriak.

14. artikulua.- Diru-laguntzaren baldintzak aldantzea.

1.- Diru-laguntza emateko kontuan hartu diren baldintzak aldatzen badira –beti ere, diru-laguntzaren helburua bete dela ulertuz gero– edota beste edozein erakunde publiko edo pribatutik helburu bera betetzeko bestelako diru-laguntzarik lortu bada, diru-laguntza emateko ebazpena aldatzea ekarriko du horrek. Horretarako, Lehendakaritzako idazkari nagusiak aldatze ebazpena emango du emandako diru-laguntzen zenbatekoak egokitzeko.

2.- Programa, jarduera edo ekintza bat euskal etxeen aurrekontuen kontura diruz lagundu eta, dena delakoarenengatik, eskaeran ezarritako baldintzetan aurrera era-materik ez badago, egoera horren berri eman beharko zaio Kanpo Harremanetarako Idazkaritza Nagusiarri. Horrelakoetan, eta esleipen ebazpena aldatzea egoki ez bada, Lehendakaritzaren idazkari nagusiak beste ebazpen emango du emandako diru zenbatekoa itzul dadin eskatzeako eta, hala balegokie, beste programa, jardue-ra edo ekintza batzuk diruz laguntzeko.

3.- Horrelakoetarako, deialdiaren baldintzak betetzen dituzten beste hamar programa ere jasoko ditu esleipen ebazpenak lehentasun ordenaren arabera, esleitutako diru-laguntzen baldintzak ez betetzeagatik, baldintzok aldatzeagatik, edota diru-laguntzei uko egiteagatik aurrekontu baliabide berririk izanez gero diru-laguntza jaso dezaten programa horiek beste ebazpen ba-

3.- Facilitar a la Oficina de Control Económico y al Tribunal Vasco de Cuentas Públicas la información que le sea requerida en el ejercicio de sus funciones respecto de las subvenciones recibidas con cargo a cada convocatoria.

4.- Comunicar a la Secretaría General de Acción Exterior la obtención de subvenciones o ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad procedentes de cualesquiera administraciones o entes tanto públicos como privados.

Artículo 12.- Pago de la subvención.

El abono se efectuará en dos pagos, el primero por importe del 50 % de la ayuda concedida tras la aceptación de la misma, y el 50% restante tras ser recibidos en la Secretaría General de Acción Exterior los justificantes de pagos realizados que cubran el total de la subvención.

Artículo 13.- Justificación de la subvención.

Las personas físicas o jurídicas beneficiarias deberán presentar, en el plazo de tres meses desde la finalización de la gira, la documentación siguiente:

a) Informe detallado de la ejecución de la gira objeto de subvención.

b) Justificación documental de los gastos ocasionados con cargo a la subvención concedida.

Artículo 14.- Modificación de las condiciones de la subvención.

1.- Toda modificación de las condiciones tenidas en cuenta para la concesión de la subvención, siempre que se entienda cumplido el objeto de ésta, y en su caso, la obtención concurrente de otras subvenciones y ayudas concedidas por cualquier otra entidad pública o privada, podrá dar lugar a la modificación de la Resolución de concesión de las subvenciones. A estos efectos, por la Secretaría General de la Presidencia se dictará la oportunua Resolución de modificación, en la que se reajustarán los importes de las subvenciones concedidas.

2.- Si por cualquier motivo, los programas, actividades o acciones subvencionados con cargo esta convocatoria no pudieran ejecutarse en los términos contemplados en la solicitud, tal situación deberá comunicarse a la Secretaría General de Acción Exterior. En ese caso, y cuando no proceda la modificación de la Resolución de concesión, el Secretario General de la Presidencia, mediante Resolución adoptada al efecto, podrá determinar la concesión de la ayuda para atender otros programas, actividades o acciones.

3.- Para estos supuestos, la Resolución de adjudicación podrá incluir, asimismo, para el caso de que se hubiera agotado el crédito existente y quedasen programas sin subvencionar, una relación de un mínimo de diez programas en orden de prelación que, cumpliendo los requisitos de la convocatoria, podrán ser objeto de subvención en posteriores Resoluciones en el caso de

tzuen bitartez. Dena den, beste ebaazpenok deialdi ebaazpenak argitaratzen den urtean eta esleipen ebaazpenean ezarritako diru zenbatekoan eman beharko dira..

15. artikulua.— Baldintzak ez betetzea.

Egindako gastuak Dekretu honetan jasotakoaren arabera justifikatzen ez badira, aurkeztutako datuak okeerrak badira, jasotako diru-laguntza eskabidean adierazitako helburuaz bestera erabiltzen bada, edo Dekretu honetan edo urteko deialdiaren ebaazpenean ezarritako baldintzak betetzen ez badira, ordura arte jasotako diru-laguntza guztiak gehi legezko interesak itzuli beharko dira, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasun-tza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Battegina onartu zuen azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza-ko Dekretuan ezarritakoaren arabera eta abenduaren 17ko 689/1991 Dekretuaren II. Tituluan diru-laguntzak itzultzeko jardunbide orokorraz aurreikusitakoaren arabera.

Diru-laguntzok berekin dakartzaten betebeharraak ez betetzeak oso larritzat jo daiteke —aurretik zigor espedienteari hasiera eman bazaio- eta diru-laguntza hauek jasotzeko gaitasuna gehienez hiru urtez kentzeko bidea eman dezake horrek, 1/1997 Legegintza Dekretuaren 63. artikuluan ezarritakoaren arabera. Dekretu horren bitartez, Euskal Autonomia Erkidegoko Herriogasun-tza Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Battegina onartu zen.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Dekretu honetan aurreikusita ez dagoen guztian Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen azaroaren 26ko 30/1992 Legea aplikatuko da. Lege hori urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatu zuen.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2003ko uztailaren 29an.

Lehendakaria,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.

existir nuevas disponibilidades presupuestarias por incumplimiento, modificación o renuncia de las subvenciones adjudicadas. En todo caso estas adjudicaciones deben resolverse en el transcurso del año en el que se publica la Resolución de adjudicación y en la cuantía que se determine en la misma.

Artículo 15.— Supuestos de incumplimiento.

La falta de justificación de los gastos en los términos establecidos en el presente Decreto, la falsedad de los datos presentados, la aplicación de la cantidad recibida para distinta finalidad a la propuesta en la solicitud, o el incumplimiento de las condiciones establecidas en el presente Decreto o en la Resolución anual de convocatoria, dará lugar a la devolución de la subvención percibida hasta ese momento más los intereses legales, de conformidad con lo establecido en el Decreto Legislativo 1/1997, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco y en el Procedimiento General de Reintegro de las subvenciones previsto en el Título II del Decreto 698/1991, de 17 de diciembre.

El incumplimiento de las obligaciones que se derivan de estas ayudas, previo inicio del correspondiente expediente sancionador, podrá ser declarado como infracción muy grave, pudiendo dar lugar a la sanción de inhabilitación para recibir las presentes subvenciones durante un plazo máximo de tres años, de conformidad con lo establecido en el artículo 63 de Decreto Legislativo 1/1997, por el que se aprueba el Texto Refundido de la Ley de Principios Ordenadores de la Hacienda General del País Vasco.

DISPOSICIÓN ADICIONAL

En todo lo no previsto en este Decreto será de aplicación la Ley 30/1992, de 26 de noviembre, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, modificada por la Ley 4/1999, de 13 de enero.

DISPOSICIÓN FINAL

El presente Decreto entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 29 de julio de 2003.

El Lehendakari,
JUAN JOSÉ IBARRETXE MARKUARTU.